



## Adinberri programa

Urtea :2018 | Ekonomia Sustapena

### DESKRIBAPENA

Zahartzaro osasungarriaren esparruan eragina izan dezaketen I+G+B jarduerak babestea, sistema soziosanitarioaren bikaintasuna lortzea, eta alor horretako industriaren lehiakortasuna sustatzea. Eta horretarako, arreta emateko modu berriak sustatzera bideratutako jarduketara esparru berriak identifikatu, diseinatu eta garatu behar dira, herritarren bizi-kalitatea eta asistentzia eta osasun sistema hobetzeko, eta adinekoentzako arreta sozial eta soziosanitarioaren ereduaren bikaintasuna eta jasangarritasuna lortzen laguntzeko.

### ENTITATE ONURADUNAK

- a) Gipuzkoan dauden enpresak eta elkarte enpresarialak.
- b) Gipuzkoan dauden Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko erakundeak.
- c) Unibertsitatez kanpoko hezkuntza sistemako ikastetxeen sareko entitateak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren funts publikoen bidez finantzaturakoak eta entitate horien eta unibertsitateen interesak ordezkatzeko dituzten taldeak eta elkarteak. Entitateek Gipuzkoan eduki behar dute beren egoitza.
- d) Gizarte-ekintzaren hirugarren sektoreko irabazi asmorik gabeko entitate, fundazio eta elkarteak, Gipuzkoan kokatuta daudenak, eta helburutzat dutenak zahartzearen alorreko sare sozioasistentzian eta/edo soziosanitarioan lan egitea.

### DIRU-LAGUNTZAREN XEDE DIREN JARDUERAK

Diruz lagundu daitezke jarduketak hauek:

- a) ikerketa industrialeko proiektuak eta garapen esperimentalak
- b) berrikuntza proiektuak
- c) prozesu eta antolaketako berrikuntza proiektuak

Diruz lagundu daitezkeen jarduketak esparru hauetako proiektuak garatzera bideratuta daude:

- Bizitza-luzerarako etxea



- Arreta eta zaintzak
- Bizitza-luzerarako ingurua
- Zahartze balioduna
- Zahartze aktiboa
- Zahartze osasungarria

Proiektu batek diru laguntza jaso ahal izateko, gutxienez 40.000 euroko aurrekontu osoa aurkeztu behar da.

Berrikuntza proiektuen kasuan, enpresa ertain eta txikiak bakarrik izango dira onuradun.

Prozesu eta antolaketako berrikuntza proiektuen kasuan, enpresa handiak onuradun izango dira soilik baldin eta enpresa txiki eta ertainekin (ETE) elkarlanean aritzen badira, eta ETE horiek diruz lagungarri diren kostuen % 30a ordaintzen badute.

## **DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KOSTUAK**

Diruz lagungarriak izango dira erakunde eskatzaileak aurkezten duen aurrekontu banakatu eta xehatua jasotako kostuak, jardueraren garapenari zalantzarik gabe lotuta daudenean. (Ikusi diruz lagungarriak diren kostuak 8.oinarrian)

## **DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA**

Ikerketa industrialaren proiektuetan, diruz lagundu daitezkeen kostuen % 50.

Garapen esperimentaleko proiektuetan, diruz lagundu daitezkeen kostuen % 25.

Berrikuntza proiektuetan, diruz lagundu daitezkeen kostuen % 50.

Prozesu eta antolaketako berrikuntza proiektuei dagokienez, enpresa handien kasuan, diruz lagundu daitezkeen kostuen % 15, eta enpresa txiki eta ertainen kasuan, diruz lagundu daitezkeen kostuen % 50.

## **EMATEKO PROZEDURA**

Lehiaketa bidezkoa, deialdi eta hautapen prozedura bakar baten bitartez.

## **BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA**

Diru laguntza hauek bateragarriak izango dira beste edozein administraziok edo erakunde publikok nahiz pribatuk, estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak, helburu bera lortzeko emandako diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin, 651/2014 Erregelamendu Orokorrak, kategorien araberrako salbuespenari buruzkoak, aurreikusitako gehieneko kopurura arte.



## BETETZEKO EPEAK

Eskaerak aurkezteko epea: **2018ko ekainaren 29an, goizeko 12:00etan amaituko da.**

Jarduerak hasteko epea: **diru laguntza eskatu ondoren hasiko dira, urte naturalaren barruan.**

Proiektuen exekuzio data: **2019ko urriaren 2a**

Proiektuak justifikatzeko data: **2019ko azaroaren 2a**

## ARAUDI APLIKAGARRIA

[Adinberri programa](#)

### ESKAERA EGITEKO URRATSAK

- [Informazioa eta dokumentuak](#)
- [Eskaera kudeatzeko aplikatiboa](#)

## EDOZEIN ZALANTZA IZANEZ GERO, KONTSULTATU

EKONOMIA SUSTAPENENKO ZERBITZUA

Kudeaketa teknikoa: 943.112217 / 943.112216

[adinberri.laguntzak@gipuzkoa.eus](mailto:adinberri.laguntzak@gipuzkoa.eus)